

**Erakusketa** / Exposición / Exhibition

**2019.11.09 - 2020.02.16**

# MADRASSA COLLECTIVE

**Erakusketa-aretoa**
Sala de exposiciones
Exhibition hall

**TABAKALERA**

KULTURA GARAIKIDEAREN NAZIOARTEKO ZENTROA
—

CENTRO INTERNACIONAL DE CULTURA CONTEMPORÁNEA
—

Donostia/San Sebastián

# SARRERA
# INTRO

**EU**

**Ez da ezohikoa baieztatzea arte-erakusketak ezagutzaren ekoizpen eta dibulgaziorako funtsezko espazio bihurtu direla. Askotan, munduaren zati handi bat zeharkatzen duen erakunde eta museoen sarean, sakontzeko gonbita luzatzen diguten proposamen artistikoekin egiten dugu topo; estrategia ezberdinen bitartez, gaurkotasunak sorrarazten dizkigun dilemak jorratzea proposatzen digute. Oro har, uste dugu gure pertzepzio-sistemaren bidez hautematen dugunak ordena naturalari erantzuten diola, eta, beraz, modu espontaneo eta berezkoan ikusi, erreparatu eta entzuten dugula. Baina hori ez dator bat errealitatearekin. Ibiltzen, hizkuntzaren bidez mintzatzen eta mahaian modu zuzenean jokatzen ikasten dugun bezalaxe, ikusten eta erreparatzen ikasten dugu, gure aurrean gertatzen dena bereizten eta ulertzen.**

Tabakaleran gustatzen zaigu pentsatzea askotariko erak daudela gure jarduera-programa osatzen duten ekimenen multzora iristeko, eta ahaleginak egiten ditugu interesdunak topo egin dezan hizkuntza eta sentsibilitate ugarirekin. Horrez gain, multzo heterogeneo horretan harremanak lotzen dituzten harietan pentsatzea ere gogoko dugu. Ez da kointzidentzia erakusketa-proiektu berri hau zineman oinarritzen den jarduera-programa batekin batera aurkeztu izana, eta, saio batzuetan, Elías Querejeta Zine Eskolako ikasleak izatea protagonista; ez da kointzidentzia orain aretoan aurkezten den proiektuetako bat Tabakalerak eskaintzen duen egonaldi-programari esker gauzatu izana; ez da kointzidentzia artistek proposatzen dizkiguten edukiak publikoarengana eta familiengana hurbiltzen ahalegintzen den bitartekaritza-programa bat existitzea; eta ez da kointzidentzia erakusketaren sarreran Ubik sormen-liburutegiak egindako hautaketa bibliografiko bat egotea, erakusketa-denboraldi berri honetarako gai eta edukietan sakontzeko aukera ematen duena.

Beraz, Tabakalerako erakusketak bisitatzea aukera bat izan daiteke artista garaikideek eskaintzen dituzten proposamenak ikusteko, baita proposamen horiek gure ingurunearekin eta gertuko eta berehalako errealitatearekin nolako harremana duten aztertzeko ere.

**ES**

**Afirmar que las exposiciones de arte se han convertido en espacios fundamentales para la producción y la divulgación del conocimiento no es nada extraordinario. A menudo nos encontramos, en la red de instituciones y museos que atraviesa gran parte del mundo, con propuestas artísticas que nos invitan a profundizar, por medio de diversas estrategias, en aquellos dilemas que nos plantea la actualidad. Por lo común, tendemos a pensar que, aquello que recibimos a través de nuestro sistema perceptivo, responde al orden de lo natural y que, por lo tanto, vemos, observamos y escuchamos siempre de un modo espontáneo e innato. Nada más lejos de la realidad. Del mismo modo que aprendemos a caminar, a expresarnos a través del lenguaje o a comportarnos de una forma concreta en la mesa, aprendemos a ver y a mirar, a distinguir y a comprender lo que acontece frente a nosotros.**

En Tabakalera nos gusta pensar nuestro programa de actividades como un conjunto de iniciativas al que es posible acceder de muy diversas formas, y tratamos de favorecer que la persona interesada pueda encontrarse con una multiplicidad de lenguajes y sensibilidades. Pero también nos gusta pensar en los hilos que tratan de trenzar relaciones entre este conjunto heterogéneo. No es una coincidencia que este nuevo proyecto expositivo se presente junto a un programa de actividades que se apoya de manera especial en el cine y que, en algunas de esas sesiones, el alumnado de Elías Querejeta Zine Eskola sea el que tome el protagonismo; que uno de los proyectos que ahora se presentan en sala haya sido elaborado gracias al programa de residencias que Tabakalera ofrece; que exista un programa de mediación que trata de acercar los contenidos que nos proponen los artistas al gran público y a las familias; o que el hall de la exposición esté ocupado por una selección bibliográfica realizada desde la biblioteca de creación Ubik, que permite ahondar en las temáticas y los contenidos para esta nueva temporada de exposiciones.

Visitar las exposiciones de Tabakalera puede ser, por tanto, una oportunidad para atender las propuestas que nos lanzan los artistas contemporáneos y ver cómo estas se relacionan con nuestro entorno, con nuestra realidad más inmediata y cotidiana.

# ON FAIL[L]ED TALES AND TA[Y]LORS

## Madrassa Collective

2017ko ekainean, arte egonaldietako batzordea Tabakaleran bildu zen, hurrengo urtean egonaldi horiek egingo zituzten artistak eta komisarioak hautatzeko. Virginie Bobin komisarioa eta Juan Pérez Aguirregoikoa artista izan ziren, Tabakalerako taldearekin batera, Madrassa Collective kolektiboaren *Something to Generate from* proiektua hautatu zutenak, komisariotzaren modalitatean. Deialdi horren baldintzetako bat zen hautatutako proposamenaren emaitzak erakusketa forma izan behar zuela eta Tabakalerako programan integratuko zela.

Madrassa Collective nagusiki Afrika Iparraldean eta Ekialde Ertainean bizi diren komisarioen kolektibo bat da; haien lanak kolektibotasuna du ardatz, ikerketa eta jarrera kritiko batetik abiatuta. Taldeko kideak askotariko diziplinetatik datoz: artearen historia, zinema, arkitektura, kultura kudeaketa edo komisariotza ikasketak, esaterako. Profilen mosaiko horrek kolektiboa denari, lankidetzari eta mugaz gaindikoari buruz hausnartu nahi du; horretarako, erakusketa kolektibo, performance-proiektu edo argitalpenerako arte proposamenak egiten dituzte.

En junio de 2017 se reunió en Tabakalera el comité de residencias artísticas para seleccionar las/os artistas y comisarias/os que iban a disfrutar de las residencias del año siguiente. La comisaria Virginie Bobin y el artista Juan Pérez Aguirregoikoa fueron, junto a miembros del equipo de Tabakalera, quienes seleccionaron el proyecto del colectivo Madrassa Collective, *Something to Generate from*, en la modalidad de comisariado. Uno de los requisitos de esta convocatoria era que el resultado de la propuesta seleccionada debía tener forma de exposición que sería integrada en el programa de Tabakalera.

Madrassa Collective es un colectivo de comisarias/os afincadas/os, principalmente, en el Norte de África y Oriente Medio, y cuya propuesta viene a subrayar lo colectivo abordado desde la investigación y la actitud crítica. Sus miembros provienen de diferentes disciplinas como la historia del arte, el cine, la arquitectura, la gestión cultural o los estudios de comisariado. Un mosaico de perfiles que busca reflexionar sobre lo colectivo, lo colaborativo y lo transfronterizo, a través de propuestas artísticas que toman cuerpo en exposiciones colectivas, proyectos performativos o publicaciones.

Madrassa Collective-rentzat, funtsezkoa da, batetik, prozesua bera eta, bestetik ulertzea ezagutzak eskuratu eta ekoiztea modu partekatuan gauzatu beharreko zerbait dela. Izan ere, *madrassa* hitzak eskola esan nahi du arabieraz [مدرسة]. Arteen bira pedagogikoa deitzen zaion horrek gogorarazten digu jatorritik estuki lotuta egon zirela artearen eta pedagogiaren diziplinak. Madrassa Collective-k bizitzaren prozesuei loturiko zerbaiten gisan ulertzen du ikasketa; hala, kontakizun eta poesia narratiboen indarra gai da nagusi diren ezagutzen dinamikei eta irakurketa normatiboei, norabide bakarreko ibilbideei, bira emateko.

Madrassa Collectivek artista eta kolektiboekin lan egiten du, eta elkarrekin lan egiteak dakartzan erronka eta ondorio guztiak onartzen ditu: etengabe hitz egin, entzun eta eztabaidatzeko denbora hartzea eta adostasunaren automatismoetatik nahitaez igaro beharrik ez izatea.

Para Madrassa Collective, lo procesual, y entender la adquisición y la producción de conocimiento como algo compartido, deviene un elemento clave. No en vano, *madrassa* significa escuela en árabe [مدرسة]. El llamado giro pedagógico de las artes nos recuerda lo íntimamente ligados que estuvieron las disciplinas del arte y la pedagogía desde sus orígenes. Madrassa Collective entiende el aprendizaje como algo ligado a los procesos de la vida, donde la fuerza de las narrativas y las poéticas de lo colectivo son capaces de dar la vuelta a las dinámicas del conocimiento dominante y las lecturas normativas, las rutas de una única dirección.

Madrassa Collective trabaja con artistas y colectivos, asumiendo todos los retos y consecuencias que conlleva el hecho de trabajar juntos: darse tiempo para el diálogo, la escucha y el debate continuado, que no tiene que pasar necesariamente por los automatismos del consenso.



*Oda Projesi, 2007*

Horrez gain, kolektibo horrek bultzatzen duen ikuspegiaren arabera, prozesuaren balorazioa arrakasta edo porrot gisa ulertzen den horretatik harago joan daiteke.

Eraginkortasuna diskurtso nagusi gisa hartu duen eta politikoa denaren dentsitatea konponbide tekniko batera murriztu duen logika baten aurrean, *On Fail[l]ed Tales and Ta[y]lors*, erakusketak alderdi zehaztugabea eta ezustekoa azpimarratzen ditu, baita akatsa eta porrota ere. Erakusketan sei artistek hartzen dute parte; (horietatik hiru kolektiboak), eta porrota praktika artistikoaren katalizatzaile gisa hartzen duten sei instalazio aurkezten dira. Madrassa Collective-k diziplina anitzeko sei proposamen hauek ehundu ditu artistekin, historia nagusiak dituen arrakalak ikusarazteko, horietan sartzeko eta imajinario berriak zeinak bide ematen baitiete, joan den mendekoak izanagatik ere, gaur-gaurkoz indarrean jarraitzen duten utopia batzuk ikusteko eta ulertzeko beste modu batzuei.

Además, se impulsa una perspectiva en la que la valoración del proceso pueda ir más allá de lo que se entiende por éxito y fracaso.

Frente a una lógica que ha hecho de la eficacia su discurso principal, reduciendo a una resolución técnica la densidad de lo político, *On Fail[l]ed Tales and Ta[y]lors*, el título de la exposición, pone el acento en lo inexacto y lo imprevisible, en el error y también en el fracaso. En la exposición participan seis artistas, de los cuales tres son colectivos, y se presentan seis instalaciones que toman el fracaso como catalizador de su práctica artística. Madrassa Collective ha tejido con los artistas estas seis propuestas multidisciplinares para visibilizar las grietas que tiene la Historia dominante, colarse en ellas y generar nuevos imaginarios que dan lugar a otras formas de ver y entender algunas de las utopías del siglo pasado que perviven aún hoy en día.

# BIOGRAFIA
# BIOGRAFÍA

## Madrassa Collective



Madrassa nagusiki Afrikako eta Ekialde Ertaineko zortzi kidek osatutako elkarte kuratoriala da. Komisarioak hainbat diziplinatatik datoz (artearen historia, komisariotza ikasketak, ekonomia politikoa, arkitektura eta zinema) eta askotariko praktikak uztartzen dituzte (ikerketa, kulturaren kudeaketa eta komisariotzaren kudeaketa).

Madrassa Collective taldearen ustez erakusketak antolatzea jarduera ikertzaile eta kritikoa da. Elkartearen helburua da praktika kolektiboak eta mugaz gaindiko lankidetzak esperimentatu eta ikertzea, haien jatorrizko eskualdeetan sorkuntza artistikoak dakartzan zailtasunei aurre egiteko bide gisa.

Bere proiektuen bidez, taldeak hainbat metodologia kuratorial aztertzen ditu (erakusketa kolektiboak, proiektu performatibo eta parte-hartzaileak, argitalpenak, ikerketak eta “mapping” ariketak), askotariko gaiak eta geografiak arakatuz.

Hauek dira Madrassa Collective-ko kideak: Nadine Atallah, Nouha Ben Yebdri, Victoria Dabdoub, Francesca Masoero, Aude Christel Mgba, Rim Mejdi, Léa Morin eta Marc Mouarkech.

Madrassa Collective es un colectivo curatorial compuesto por ocho miembros procedentes, en su mayoría, de África y Oriente Medio; las comisarias/os provienen de diferentes disciplinas (historia del arte, estudios de comisariado, economía política, arquitectura y cine) y combinan múltiples prácticas (investigación, gestión cultural y comisariado).

Madrassa Collective, que concibe la organización de exposiciones como una actividad investigadora y crítica, pretende experimentar e investigar prácticas colectivas y colaboraciones transfronterizas como vía para la resistencia y enfrentamiento a las dificultades que entraña la creación artística en las regiones de procedencia de sus miembros.

A través de sus proyectos, el colectivo examina diferentes metodologías curatoriales (propuestas de exposiciones colectivas, proyectos performativos y participativos, publicaciones, investigaciones y ejercicios de *mapping*), explorando diversos temas y geografías.

Los miembros de Madrassa Collective son Nadine Atallah, Nouha Ben Yebdri, Victoria Dabdoub, Francesca Masoero, Aude Christel Mgba, Rim Mejdi, Léa Morin y Marc Mouarkech.

# ARTISTA ETA KOLEKTIBO PARTE-HARTZAILEAK

# ARTISTAS Y COLECTIVOS PARTICIPANTES



*High Dam-redrose, Ala Younis*



## Yasmina Reggad

Yasmina Reggad komisario independentea, idazlea, ikertzailea eta, batzuetan, interprete eta koreografoa da. Bruselan eta Aljerren lan egiten du. Sorbona Unibertsitatean lizentziatu zen Erdi Aroko Historian, eta gaur egun, komisarioa da Aria-n (Artist residency in algiers). Horren aurretik, Reggadek komisario gonbidatu gisa parte hartu zuen Art Dubai International Commissions-en 2016 eta 2017ko edizioetan, eta erakusketak eta proiektuak zuzendu ditu Delfina Foundation-en. Bere ikerketa etorkizuneko politikan ardazten da, eta dantzan eta performancean inspiratutako metodologia performatiboak aztertzen ditu. Yasmina Reggad hautatua izan da, halaber, Sundance Institute Theatre Programme-en aurtengo edizioan parte hartzeko.

Es comisaria independiente, escritora, investigadora y, en ocasiones, también intérprete y coreógrafa. Trabaja en Bruselas y Argel. Es licenciada en Historia Medieval por la Universidad de la Sorbona y actualmente es comisaria en Aria (artist residency in algiers). Como comisaria invitada, Reggard ha participado en las ediciones 2016 y 2017 de Art Dubai International Commissions, y ha dirigido exposiciones y proyectos en la Delfina Foundation. Su investigación se centra en la política del porvenir, y explora metodologías performativas inspiradas en la danza y la performance. Yasmina Reggad también ha sido seleccionada para participar en la edición de este año del Sundance Institute Theatre Programme.

## Ala Younis

Ala Younis Ammanen arkitekto gisa prestatutako artista da. Bere lanaren zati handi bat ikerketan eta proiektu kolaboratibo, zinematografiko, editorial eta komisariotzakoetan parte hartzean datza. Bere proiektuak esperientzia kolektiboei buruzkoak dira, esperientzia pertsonaletan kolapsatzen baitira. Eta hau ere hartzen du ardatz: nola artxiboak zaletasunekin jokatzen duen eta nola horren hutsek eta ezustekoek imajinazioa manipulatzen duten. Bere obra erakusketa indibidualetan aurkeztu da Ammanen, Londresen, Sevillan, Xarjan, Dubain eta New Yorken, baita Istanbuleko eta Gwangju-ko biurtekoan eta New Museum-eko hirurtekoan ere. Horrez gain, *Plan for Greater Baghdad* (2015) izeneko lana estreinatu zuen Veneziako 56. Bienalean. 2013an eta komisarioa izan zen Veneziako 55. Bienalean, Kuwaiteko lehen pabiloi nazionalean.



Artista formada como arquitecta en Amán. Gran parte de su trabajo consiste en la investigación y en la participación en proyectos colaborativos, cinematográficos, editoriales y de comisariado. Sus proyectos tratan sobre experiencias colectivas que colapsan en experiencias personales, y del modo en el que el archivo incide en la imaginación a través de sus predilecciones, lagunas y contratiempos. Su obra se ha presentado en exposiciones individuales en Amán, Londres, Sevilla, Sharjah, Dubái y Nueva York, y en las Bienales de Estambul y Gwangju y en la Trienal del New Museum. Su *Plan for Greater Baghdad* (2015) se estrenó en la 56ª Bienal de Venecia. En 2013 fue comisaria del primer pabellón nacional de Kuwait en la 55ª Bienal de Venecia.

## Sofiane Zouggar

Sofiane Zouggar Zeramikan graduatu zen Aljerreko École des Beaux-Arts-en. Bere lana identitate aljeriarraren eta alderdi soziopolitikoen ikerketan ardazten da, baita giza baldintzapenean ere, informazioari lotuta. 2013tik, «hamarkada ilunaren» (edo «Aljeriako gerra zibila») artxiboaren eta memoriaren gainean lan egiten du, irudia aztertzearen bidez, memoria kolektibo gisa. Bere obran, Sofianek argazkilaritza eta bideoa, soinua, mugimendua eta instalazio elkarreragileak erabiltzen ditu.

Hainbat erakusketetan parte hartu du: Dak'Art 2012 bienala, Dakar (Senegal); Event Young Artists, Nottingham (Erresuma Batua); Picturie Générale, Aljer (Aljeria); «MoMRtA» (Absentziaren aurreko erantzun fabrikatuaren museoa), Arte Moderno eta Garaikidearen Museoa - MAMA, Aljer (Aljeria); Dak'Art 2014 bienaleko pabiloi aljeriarra, Dakar (Senegal).



Sofiane Zouggar se graduó en Cerámica en la École des Beaux-Arts de Argel. Su trabajo se centra en la investigación de la identidad argelina y las cuestiones sociopolíticas, así como en el condicionamiento humano en relación con la información. Desde 2013 trabaja sobre el archivo y la memoria de la "década oscura" (concepto con el que se denomina la guerra civil argelina) a través de la exploración de la imagen como memoria colectiva. En su obra, Sofiane utiliza diferentes medios como la fotografía y el vídeo, el sonido, el movimiento y las instalaciones interactivas.

Ha participado en varias exposiciones y festivales, incluyendo la Bienal Dak'Art 2012 en Dakar, Senegal; el Event Young Artists en Nottingham, en el Reino Unido; la Picturie Générale en Argel, Argelia; el MoMRtA (El Museo de Respuesta Fabricada a la Ausencia) en el Museo de Arte Moderno y Contemporáneo – MAMA en Argel, Argelia; o el Pabellón argelino en la Bienal Dak'Art 2014 de Dakar, Senegal.

## Oda Projesi

Oda Projesi Istanbulen egoitza duen kolektibo artistikoa da. Özge Açıkkol, Güneş Savaş eta Seçil Yersel-ek osatzen dute. 2000ko urtarriletik aurrera, Galatako auzoan euren espazioak irabazi asmorik gabe: proiektuak, bilerak eta ekitaldiak antolatzen zituzten bertan, 2005eko martxoaren 16ra arte. Egun horretan, Oda Projesi bere egoitzatik irtenarazi zuten gentrifikazio prozesua zela eta.

Ordutik aurrera, Oda Projesi proiektu nomada da, espazioari eta lekuari buruzko galderak planteatzen jarraitzen du; harreman-eredu berriak sortuz, irrati-igorgailuak, liburuak, postalak, egunkariak eta halako bitartekoak erabiliz, eta era ezberdinetako topaguneak aukeratuz, betiere ere Istanbuleko herritarrekin eta hiriarekin hartuemanean.

Oda Projesik erakusketa hauetan parte hartu du, besteak beste: (2019) *Come on!*, Participation and Collaborative Practice in Contemporary Art, Plato Sanat (Istanbul); *The World's Last Exhibition*, Til Vaegs, Kopenhage (Danimarka); (2018) *Bize Ait Bir Oda*, erakusketa Ark Kültür-en, Istanbul; (2016) ANA #2, A.N.A. AIR - Astrid Noack's Atelier residency, Kopenhage (Danimarka); (2011) Tongue, (Nadin Reschke-rekin lankidetzan), *Other Possible Worlds – Entwürfe diesseits von Utopia*, NGBK (Berlin).



Es un colectivo artístico activo desde el año 2000 con sede en Estambul (Turquía) compuesto por Özge Açıkkol, Güneş Savaş y Seçil Yersel. Desde enero de aquel año, su espacio en el barrio de Galata funcionó como un estudio independiente sin ánimo de lucro, albergando proyectos, reuniones y actos hasta el 16 de marzo de 2005, cuando el colectivo fue desalojado del lugar debido al proceso de gentrificación.

Desde entonces, Oda Projesi tiene un carácter nómada que ya no se basa en el espacio, pero sigue planteando cuestiones en torno a él, y crea modelos de relación utilizando diferentes medios como emisoras de radio, libros, postales y periódicos, o da forma a diferentes puntos de encuentro, en consonancia con la creatividad de Estambul y de su ciudadanía.

Algunas de las exposiciones en las que Oda Projesi ha participado son: *Come on!,* Participation and Collaborative Practice in Contemporary Art, Plato Sanat, Estambul; *The World's Last Exhibition,* Til Vaegs, Copenhague, Dinamarca (2019); *Bize Ait Bir Oda,* exposición en Ark Kültür, Estambul (2018); *ANA #2,* A.N.A. AIR - Astrid Noack's Atelier residency, Copenhague, Dinamarca (2016); Tongue, (en colaboración con Nadin Reschke), *Other Possible Worlds – Entwürfe diesseits von Utopia,* NGBK, Berlín (2011).

# Grupo Etcétera

Diziplina anitzeko kolektibo hau 1997an sortu zen Buenos Airesen, eta artista bisualez, poetez, aktoreez eta antzezleez osatuta dago. Asmo bera zuten denek: artea berehalako gatazka sozialeko espaziora –hots, kalera– ekartzea eta gatazka sozial hori kultura-ekoizpeneko eremuetara eramatea, hedabideak eta arte-erakundeak barne.

2005ean, Internacional Errorista mugimendua sortzen lagundu zuten. Nazioarteko erakunde horrek errorea bizi-filosofiatzat hartzen du (www.erroristas.org).

Egun, arte-erakundeetako eta horiez kanpoko kolektibo eta banakoekin lankidetzan aritzen da taldea, baita hezkuntzaren eremuan ere. Espazio publikoko jarduerak egiteaz gain, nazioarteko erakusketa eta biurteko ugaritan parte hartu dute.

Loreto Garín Guzmánek (Txile) eta Federico Zukerfeldek (Argentina) sortu zuten kolektiboa, eta artxiboa, erakusketak, hezkuntza-jarduerak eta gainerako ekimenak koordinatzen dituzte. Bilduma publiko eta pribatuen parte dira haien lanak; besteak beste, hauetakoak: FRAC Poitou-Charentes (Frantzia) eta Van Abbemuseum (Herbehereak).



Este colectivo multidisciplinar fue fundado en Buenos Aires en 1997 por artistas visuales, poetas, actores e intérpretes con la intención de llevar el arte al espacio de conflicto social inmediato, la calle y, a su vez, utilizar el conflicto social en los ámbitos de producción cultural, incluyendo instituciones artísticas y medios de comunicación.

En 2005 participaron en la creación de la Internacional Errorista, una organización internacional que proclama el error como filosofía de vida (www.erroristas.org).

Además de llevar a cabo actividades en el espacio público, han participado en numerosas exposiciones internacionales y bienales.

Loreto Garín Guzmán (Chile) y Federico Zukerfeld (Argentina), cofundadores del colectivo, son los encargados de coordinar el archivo, las exposiciones, las actividades educativas y demás iniciativas. Sus obras forman parte de colecciones públicas y privadas tales como la del FRAC Poitou-Charentes (Francia) y la del Van Abbemuseum (Países Bajos).

Es un proyecto colectivo de investigación que organiza residencias y exposiciones y produce obras de arte y publicaciones, y que lleva trabajando desde 2007 en territorios "en pausa" por razones políticas, económicas o de conflicto histórico. A juicio de este colectivo, se trata de zonas sensibles que la modernidad ha abandonado y que necesitan de la mirada artística. La primera acción tuvo lugar en la ciudad fantasma de Famagusta, en Chipre, evacuada por el ejército turco en 1974; y la segunda, en el edificio sin ocupar de la Feria Internacional de Trípoli, en Líbano, un proyecto inacabado del arquitecto Oscar Niemeyer. A continuación, este mismo proyecto se trasladó a Brasil.

## Suspended Spaces

Suspended Spaces ikerketa-proiektu bat da eta egonaldiak eta erakusketak antolatzen eta artelanak eta argitalpenak ekoizten ditu. 2007az geroztik arrazoi politiko eta ekonomikoak eta liskar historiakoa direla-eta "etenaldian" dauden lurraldeetan lan egiten duen kolektibo batek proposatutako proiektua da Suspended Spaces. Eremu sentikor horiek modernitateak abandonatuta daude, eta ikuspegi artistikoa behar dute. Lehen ekintza Zipreko Famagusta herri mamuan izan zen –Turkiako armadak biztanle guztiak ebakuatu zituen 1974an–. Bigarren ekintza, berriz, Tripoliko nazioarteko azokan izan zen (Libano), Oscar Niemeyer arkitektoaren proiektu bat ardatz hartuta. Gero, proiektuak bigarren fase bat izan zuen Brasilen.





*The case of the cardboard helicopter,*
Grupo Etcétera

## INFORMAZIO PRAKTIKOA / INFORMACIÓN PRÁCTICA

### Erakusketa-aretoaren ordutegia / Horario sala de exposiciones

**Asteartetik igandera** / De martes a domingo: **12:00 - 20:00**

TABAKALERA

KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

CENTRO
INTERNACIONAL
DE CULTURA
CONTEMPORÁNEA

Donostia/San Sebastián